



# TARTEKO MAILA 2

## Oharrak:

1. **Zure** datuak ERANTZUN-ORRIAN idatzi.
2. **Erantzun** eta **ariketa guztiak** ERANTZUN-ORRIAN markatu eta idatzi.
3. Azterketan idatzi behar duzun guztia **tinta beltzez edo urdinez** idatzi. Erredakzioak irakurgarria eta zalantzarik gabea izan behar du.
4. Azterketa amaitzean orri **guztiak** entregatu behar dira (galderak eta erantzun-orria).

### 1. ARIKETA

- ❑ Hegan egiteko eskola bati buruzko testua irakurriko duzu.
- ❑ Ondoren, aukeratu esaldiak EGIA edo GEZURRA diren. 0 adibidea da.

#### LAINO GUZTIEN AZPITIK

*Nola ikusiko ote da gure herria lainoetatik begiratuta? Sekula pentsatu duzu horretan? Pentsatzeko baino zeure begiekin ikusteko aukera luzatu nahi dizugu. Euskalair hegan egiteko eskolak ateak ireki dizkigu eta zeruan ibiltzea edonoren esku dagoela azaldu.*

Eskolako lehen hegaldiak duela hamar urte jarri zituzten abian. Hasieran, *Euskalair*-ek egoitza bakarra zuen, Iruñean. Duela gutxi, berriz, aurrepausoa eman eta Euskal Herriko hiriburu guztietan egotea erabaki dute. *Euskalair*-ek Bilbon duen egoitzara hurbildu gara eta bertan Carlos Zigiza harrapatu dugu. Irakaslea da eta hegan egiteko beharrezkoa den guztia azaldu digu.

Bertan, ez dugu edonolako hegazkinik aurkitu: aparatu ultrarinak erabiltzen dituzte. Hegazkin moderno horiek bi lagunentzako lekua dute, 500 kiloko pisua eta ohiko turismo-hegazkinak baino txikiagoak dira. Zigizak esandakoaren arabera, kirol hegazkinak baino merkeagoak dira eta hainbat laguneren artean erostea da onena. “Nik hala erosi nuen -azaldu digu- beste lagun batzuekin batera. Bigarren eskukoak ere oso aukera egokia dira: 30.000 euro inguru balio ohi dute, kotxe batek bezalaxe. Bestela, hegazkinak alokatzeko aukera ere badago”.

Gainera, paisaiak ikusteko aukera paregabea ematen dute ultrarinak, ohiko hegazkinek baino baxuago egiten dutelako hegan. Izan ere, gehienez, 5.000 metroko altuera eta 240 km/ orduko abiadura hartzen dute. Hortaz, Euskal Herriko txoko miresgarriak deskubritu nahi dituztenentzat, *Euskalair*-ek eskaintzen dituen paseoak oso gomendagarriak dira. On-line erreserba daitezke ([www.euskalair.es](http://www.euskalair.es)) eta 60 euroko prezioa dute.

Ultrarinen mundua barrutik ezagutu nahi dutenentzat, berriz, “bataioak” antolatu ohi dituzte. Horietan, hiru ultrarin mota ezberdin probatzeko aukera dago: hegazkin txikia, autogiroa (helikopteroaren antzekoa da, baina motorra geldirik duela planea dezake) edota trike

izenekoa (delta hegal motorduna). Mundua ikuspegi ezberdinetik begiratzeko aukera polita.

#### Pilotu izan nahi dut

Zerua kontrolpean izan nahi dutenentzat, ultrarin pilotu izateko ikastaroak eskaintzen dituzte. Titulu ezberdinak daude: oinarritzkoa, goi mailakoa, autogiro pilotua eta trike pilotua. Zigiza irakasleak esandakoaren arabera, “zortzi hilabete aski dira titulua ateratzeko”. Oinarritzko titulua lortzeko, hogeit hamar ordu teoriko eta hamar ordu praktikoko egin behar dira. “Hori da araudiak eskatzen duen gutxienerako kopurua, baina nahiko eskasa da. Izan ere, 10 orduko praktikarekin ezin duzu bakarrik pilotatu. Hori dela eta, goi mailako titulua eskaintzen dugu; araudiak eskatzen duena baino osoagoa” azaldu du irakasleak. Edozein modutara, hegazkinarekin konfiantza hartzea ezinbestekotzat jotzen du: “Hasieran, ikasleak asko estutzen dira. Beldurra galdu arte. Horretarako gaude irakasleok, konfiantza emateko. Gainera, hegazkinek aginte bikoitza dute, autoeskolako autoek bezalaxe. Beraz, ez dago ia arriskurik. Bestalde, eguraldiaren baldintzak kontuan izaten ditugu beti, hegaldia segurua izan dadin: egunez egiten dugu hegan eta 45 km/ordutik gorako haizearekin ez gara aireratzen”.

Hegazkinei buruzko aholkularitza ematea edota lizentziak tramitatzea dira *Euskalair*-ek eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk, ezinbestekoak direnak mundu horretan murgildu nahi dutenentzat. Izan ere, Zigizak adierazi digunaren arabera, ultrarinen mundua zeharo ezezaguna da gure artean. “Euskadin eragozpen handiak ditugu hegazkinen kultura zabaltzeko. Zailtasun handiak ditugu txapelketak antolatzeko: duela gutxi, adibidez, txapelketa bat bertan behera gelditu zen, baimenik jaso ez genuelako. Hegan egiteko leku gutxi dago gainera, Iruñean edota Hondarribian izan ezik”. Dena den, Carlos Zigiza itxaropentsu azaldu zaigu, Europa mailan garatzen ari den araudi berria lagungarri izango dela uste baitu.

Oihana Prado, HABE



		<b>E</b>	<b>G</b>
<b>0</b>	Eskola sortu zenetik Euskal Herriko hiriburu guztietan ireki zituzten egoitzak.		<b>X</b>
<b>1</b>	Kirol hegazkinak erosteko zein alokatzeko aukera dago.		
<b>2</b>	Ohiko hegazkinetatik aparatu ultrarinetatik baino hobeto ikus daiteke paisaia.		
<b>3</b>	“Bataioak” zerbitzurako helikopteroak erabiltzen dituzte.		
<b>4</b>	Pilotu-titulua lortzeko enpresak araudiak exijitzen duena baino gehiago eskaintzen du.		
<b>5</b>	Zigizaren ustez ultrarinen kultura txapelketen bidez ezaguna bihurtu da.		

## 2. ARIKETA

- Imanol zapatariari buruzko testua irakurriko duzu.
- Ondoren, testua osatu (1-7) esaldiekin (a-j). 0 adibidea da.
- Bi esaldi ez dituzu erabili behar.

### IMANOL ZAPATARIA

*Imanol Lapeña, 41 urteko iruinsemea. Zapatak konpontzen ditu Txantrea auzoko Korapilo denda-tailerrean.*

Oinetakoak luzaroan irauteko erosten ziren garai batean. Zapatak zaindu egiten ziren; ongi garbitu, behin eta berriro konpondu, zola gastatzen bazen aldatu, eta txiki gelditzen zirenean bazegoen muturra moztu eta sandalia bihurtzen zituenik ere. \_\_\_\_0\_\_\_\_, nabarmen gainera. Hala esan digu Imanol Lapeña zapatariak: “Hona etortzen diren bezeroen % 80 emakumeak dira, adin bateko emakumeak. Horietako askok \_\_\_\_1\_\_\_\_ zola hobeak jartzera, gaur egun zola gehienak plastikozkoak direlako, eskasak. Gazteak, berriz, \_\_\_\_2\_\_\_\_. Horiek nahiago dute modako zapatak erosi eta maiz aldatu. Zapatak puskatzen bazaizkie, ez dituzte konpontzera ekartzen; berriak erosi eta kito”.

Hori dela eta, konponketetatik bizi den \_\_\_\_3\_\_\_\_. Iruñean hamar bat geldituko dira. Imanol da horietako bat. Duela hamabi urte \_\_\_\_4\_\_\_\_, eta zapatari lanbidea ikastea erabaki zuen. Garbi zeukan eskuekin lan egin nahi zuela, eta bi maisuren laguntzaz ikasi zuen ofizioa. Hala, \_\_\_\_5\_\_\_\_ Txantrea auzoan, eta hantxe dihardu egun, goizeko 9.30etatik 14.00etara. Dioenez, \_\_\_\_6\_\_\_\_, baina berarekin egon garen tarte laburrean etengabeakoak izan dira bezeroen sartu-irtenak. Bezero gehienak ezagunak ditu, eta badira besterik gabe Imanol agurtzera etortzen direnak ere. “Auzokideekin tratu zuzena izatea da lanbide honen gauza politenetakoa. Etxetik gertu nago, \_\_\_\_7\_\_\_\_, eta auzoko bizitzaz gozatzen dut”. Ezagun du etxean bezala sentitzen dela: etxeko zapatilak jantzita ari da lanean.

**Aizul, 2005**

- a. DENBORAREN ARABERA KOB RATZEN DUT
- b. EZ DUT AUTORIK BEHAR LANERA ETORTZEKO
- c. GARAI HONETAN EZ DU LAN HANDIRIK IZATEN
- d. GUTXI ETORTZEN DIRA
- e. HORIEKIN LAN EGITEA EZ DA GUSTAGARRIA
- f. KORAPILO IZENENKO DENDA-TAILERRA IREKI ZUEN
- g. LANGABEZIAN GELDITU ZEN
- ~~h. OHITURA HORREK BEHERA EGIN DU~~
- i. ZAPATAK EROSI BEZAIN LASTER EKARTZEN DITUZTE
- j. ZAPATARI GUTXI DAGO GAUR EGUN

### 3. ARIKETA

- Dallasen gertatuko bitxikeria bati buruzko testua irakurriko duzu.
- Ondoren, testua osatu (1-7) beheko taulan a, b edo c aukeratu. 0 adibidea da.

#### DALLASEKO LIBURUTEGIETAN USAIN TXARREK LEKURIK EZ

Hilabete honetan Dallaxeko liburutegi publikoetan indarrean jarriko den araudi berri batek sekulako eztabaida piztu du hiri **(0)**. Araudi horren arabera, usain txarra duten **(1)** sarrera debekatuko zaie liburutegi publikoetan. Gainera, eraikinen **(2)** ezin izango da jan, sexu harremanik izan, sakelako telefonorik edota musika entzuteko tresnarik erabili, oinutsik sartu, ezta komunitan bainatu ere. Jakina, ikamika piztu duen araua usain txarrarena izan da.

Dallasen eskale eta behartsuen alde lanean **(3)** elkarteek gogor kritikatu dute araudia. Haien ustez, eraikin publikoetara aterpe edo babes bila joaten diren eskaleen **(4)** araudia da indarrean jarri dena. Dallaxeko liburutegietako zuzendari Laurie Evansek, aldiz, ukatu egin du araudiaren ustezko xede baztertzalea: "Herrialde osoko ehunka liburutegietan ezarri dituzte antzeko arauak, eta denen mesederako izan dira. Gure helburua ez da inor baztertzea". Baina baztertuen aldeko ekintzaileak ez daude ados, eta araudiak kontraesan ugari **(5)** salatu dute. Ethan Hamilton ekintzaileak **(6)** galdera da horren adibidea: "Kolonian oso garestia botata duen pertsona baten usaina ere txarra izan **(7)** ondokoarentzat. Hortaz, nork erabaki behar du zein den usain txarra eta zein ona?".

*Aizu!*, 2006

0. a. hartako b. <del>hartan</del> c. hartara	1. a. pertsoneri b. pertsonak c. pertsonen	2. a. artean b. barruan c. inguruan	3. a. dabiltzan b. daramaten c. duten
4. a. aldeko b. araberako c. aurkako	5. a. dituen b. dituela c. dituenik	6. a. botatzea b. botatako c. botatzeko	7. a. balitz b. da c. daiteke

## B) ENTZUNAREN ULERMENA

### 1. ARIKETA

- Umeek eskolan jaten dutenari buruzko irratsaio bat entzungo duzu.
- Ondoren, esaldiak osatu (1-6) a, b edo c aukeratuz. 0 adibidea da

### ONDO BIZI ONDO JAN

*Euskadi Irratia, 2005*



### 0. “Ondo bizi ondo jan” programa sortu da Orokieta eskolan

- a) gurasoek umeei jaten erakusteko.
- b) **umeek jaten ikasteko.**
- c) umeek sukaldatzen ikasteko.

#### 1. Proiektua aurrera eramán da

- a) gurasoei esker.
- b) irakasleak bultzatuta.
- c) nutrizionista eta gurasoen artean.

#### 2. Hartu diren neurrien artean

- a) bazkari amaieran esnea ematen da.
- b) bazkarian fruta ematen da.
- c) bazkaldu aurretik fruta jaten da.

#### 3. Nagusien jantokian egin diren aldaketetan

- a) enbutidoak gutxitu dira.
- b) fruta ematen jarraitu da.
- c) entsaladak sartu dira.

#### 4. Ohitura aldaketen aurretik

- a) bigarren platera nahiko ondo jaten zuten.
- b) fruta nahiko gustura jaten zuten.
- c) lehen platera ondo jaten zuten.

#### 5. Egokitze prozesuari dagokionez une honetan

- a) entsaladak jatea kostatzen zaizkie.
- b) fruta kontsumoa handiagoa da.
- c) barazkiak jaten ikasi behar dute.

## 2. ARIKETA

- Ogiari buruzko irratsaio bat entzungo duzu.
- Ondoren, lotu esaldiaren hasiera (1-6) amaierarekin (A-H). 0 adibidea da
- Bi esaldi amaiera ez dituzu erabili behar

### OGIA

*Euskadi Irratia, 2004*



Gure gizartean ogiaren kultura...	0	A	ardoarena baino ahulagoa da.
Ogiaren osagaiak baina garrantzitsuagoa da...	1	B	bigun egongo da.
Ogia egiteko ezagutza...	2	C	Espainian eta Frantzian izan da.
Okinaren formazio profesionala...	3	D	gustuen araberakoa da.
Ogiaren kolorea eta trinkotasuna...	4	E	inportantea da jendearentzat.
Gure artean ogi ona biharamunean...	5	F	Iparraldean handiagoa da.
		G	kalitatearen seinale da.
		H	ogia egiteko zein teknika erabiltzen den.

### 3. ARIKETA

- ❑ Oinetakoei buruzko irratsaio bat entzungo duzu.
- ❑ Ondoren, osatu testua galdu den informazioarekin (1-6). 0 adibidea da

#### NOLAKO OINETAKOAK...

*Euskadi Irratia*



- **Podologoaren esanetan**, mindutako oin guztiak **(0)** → **oinetakoek** eragindakoak dira.
- **Umeei dagokionez**, deportibek izerdia eragiten dute eta \_\_\_\_\_(1) \_\_\_\_\_ sartzen dira.
- **Gizonek** ez dituzte oinak zaintzen baina \_\_\_\_\_(2) \_\_\_\_\_ dute.
- **Emakumezkoei** kalte handia egiten die \_\_\_\_\_(3) \_\_\_\_\_.
- **Gaur egun** zapata-dendetan modaren tendentzia \_\_\_\_\_(4) \_\_\_\_\_ daude.
- **“Bailarina”** bezalako zapata lauak \_\_\_\_\_(5) \_\_\_\_\_ dira.

## C) IDATZIZKO ADIERAZPENA

### 1. ARIKETA: Iragarkia (80 HITZ)

(5 puntu)

- ✓ Zozketa batean telebista eta DVD aparailuak tokatu zaizkizu. Hauek saltzeko interneten iragarkia jartzea pentsatu duzu.
- ✓ Zehaztu:
  - o zergatik saldu nahi dituzun
  - o nolakoak diren
  - o salneurria eta salmenta baldintzak
  - o ...
- ✓ Iragarkiak gutxi gorabehera 80 hitz izan behar ditu.

### ZIRRIBORROA EGITEKO ORRIA

## 2. ARIKETA: GUTUNA (180 HITZ)

(15 puntu)

- ✓ Lagun baten e-maila jaso duzu.



Aspaldiko, lagun!

*Atzo Enekorekin elkartu nintzen eta iazko oporretan Argentinan egon zinela esan zidan. Zoragarria, ezta?*

*Nik ere joateko asmoa daukat baina oraindik ez dut ezer prestatu. Horregatik, informazioa eskatu nahi dizut: zerez joan zinen, non egiten zenuen lo, zenbat diru eramatea komeni den, zer ikus daitekeen, nolakoa den jendea, arazorik izan zenuen...eta bururatzen zaizun guztia.*

*Mesedez, erantzun azkar.*

*Lur*

- ✓ Erantzun zure lagunaren e-mailari.
- ✓ E-mailak gutxi gorabehera 180 hitz izan behar ditu.

## ZIRRIBORROA EGITEKO ORRIA

## SOLUZIO ORRIA

### A) IRAKURRIAREN ULERMENA

**Laino guztien azpitik**  
6 puntu

1. ARIKETA		
	EGIA	GEZURRA
<b>0</b>		<b>X</b>
1	<b>X</b>	
2		<b>X</b>
3		<b>X</b>
4	<b>X</b>	
5		<b>X</b>

**Imanol zapataria**  
7 puntu

2 ARIKETA	
<b>0</b>	<b>H</b>
1	<b>I</b>
2	<b>D</b>
3	<b>J</b>
4	<b>G</b>
5	<b>F</b>
6	<b>C</b>
7	<b>B</b>

**Dallasen gertatua**  
7 puntu

3. ARIKETA			
	A	B	C
<b>0</b>		<b>X</b>	
1	<b>X</b>		
2		<b>X</b>	
3	<b>X</b>		
4			<b>X</b>
5		<b>X</b>	
6		<b>X</b>	
7			<b>X</b>

### B) ENTZUNAREN ULERMENA

**Ondo bizi ondo jan**  
6,25 puntu

1. ARIKETA			
	A	B	C
<b>0</b>		<b>X</b>	
1			<b>X</b>
2			<b>X</b>
3			<b>X</b>
4			<b>C</b>
5		<b>X</b>	

**Ogia**  
6,25 puntu

2. ARIKETA	
<b>0</b>	<b>A</b>
1	<b>H</b>
2	<b>F</b>
3	<b>C</b>
4	<b>G</b>
5	<b>B</b>

**Nolako oinetakoak**  
7,5 puntu

3. ARIKETA	
<b>0</b>	<b>OINETAKOAK</b>
1	azkazalak
2	Moda egokiagoa
3	Takoi finak, puntak
4	desberdinak.
5	desegokiak